

PRENTSA OHARRA

Gaur Donostian CALREren bilera gaur inauguratzean

Quirogak esan du Europar Batasunak "beharrezkoa duela parlamentu erregionalekin kontaktzea, herritarrengandik eta haien benetako problemetatik hurbilen daudelako"

Proposatuta du lan-talde bat sortzea, "legebiltzar erregionalek Europar Batasunaren arkitektura instituzionalean txertaketarik onena edukitzea aztertzeko"

Arantza Quiroga Eusko Legebiltzarreko presidentek adierazi du gaur ezen Europar Batasunak "ez baldin baditu modu egokian baloratzen biltzar erregionalak, haien lana eta haien ekarpenak, herritarrengandik urruntzen joango dela, eta bere norabidea XXI. mendeko europar guztiek eskatzen dutenaren kontrakoa eta hemen gauden guztiek egunero lantzen ari garenaren kontrakoa izango dela".

Quirogak adierazpen hauek, hain zuzen, CALRE Europako Eskualdeetako Legebiltzarren Batzarraren Batzorde Iraunkorren inaugurazioan egin ditu. Batzorde horrek bilera dauka gaur Gipuzkoako Batzar Nagusietan, Eusko Legebiltzarrak antolatuta.

Eusko Legebiltzarreko presidentek eskerrak eman dizkie partaide diren biltzar erregionaletako presidenteei beren presentziagatik eta nabarmendu du legebiltzar erregionalek asumitu duten konpromiso-maila, bai eta parlamentu horiek europar integrazioko proiektuan daukaten garrantzia. "Ikusi dut, gainera" –erantsi du– "beharrezkoa dela gaur batzen gaituzten lokarri instituzionalak sustatzea eta indartzea. Eta CALREren ibilbideak islatzen du, hain justu, batzuk besteengana hurbildu ahal izateko jarri dugun eta jartzen dugun ahalegin guztia, beti ere gure herritarrengandik hurbilago dagoen Europa bat eraikitzeko asmoarekin".

Arantza Quirogak aipatu du parlamentu erregionalak garaia "gure dibertsitatearen adierazpen bizia, hala gobernantzaren maila ezberdinetan nola estatuen arteko mugen barruan existitzen den aberastasun kulturean txertatzen den mosaiko sozial horren adierazpen bizia. Eta gaur zuek hemen presente egoteak frogatzen du ezen, ezberdintzen gaituzten tonalitate horien gaineratik, badela erkidego-sentimendu bat hurbiltzen gaituena, elkarrekin aktiboki lan egitera behartzen gaituena eta demokrazia erregionalaren etxeak merezi duten arreta-maila eskatzera eramaten gaituena.





"Ez du inporta zein urruti gauden" –jarraitu du esaten Quirogak– "inportatea gaur da azkenean jabetu garelako ikaragarriko garrantzia eduki genezakeela ahaleginak batzen baldin baditugu. Eta hori gaur inoiz baino gehiago egin behar dugu, batu egin behar ditugu ahaleginak. Urteurren hau ospatzen dugu, noiz eta, Lisboako Tratatuaren indarraldiko lehen urtean. Tratatu horrek leho instituzional bat ireki digu, bere ahal guztian aprobetxatu behar duguna, argi erakusteko Europako araugintza-prozesuan parlamentu erregionalek integratzearen benetako onurak. Gure benetako itzarokizunetatik pixkat urruti baldin badago ere, berrikuntza horiek aukera bat dira aprobetxatu behar duguna, aurrerapen garrantzitsu bat dira Erkidegoaren mapa instituzionalean kokatzen gaituena".

Eusko Legebiltzarreko presidentea konbentziturik dago ezen Europak gehiago begiratu behar diela legebiltzar erregionalei, "Europaren eraikuntza instituzionalaren oinarriak garelako, demokraziaren adierazpen bizia garelako, subsidiaritate printzipioaren gauzapena garelako eta boterearen muina herritarrengana ahalik gehien hurbildu behar delako. Europak ezin du bere eraikuntza jarraitu legebiltzar erregionalei bizkarra emanda. Paper aktiboago bat eskatzen dugu, gu garelako herritarren benetako problemak hurbiletik entzuten ditugunak. Horregatik, beharrezkoa da lan-talde bat sortzea, parlamentu erregionalek Europar Batasunaren artektura instituzionalean txertaketarik onena bilatzea helburu izango duena.

"Orain behar dugu erakutsi herritarrengatik hurbilago gauden bitartekoak garelako, hurbiltasun horrek enpatia demokratiko handiagorako aukera ematen digula, eta, inportanteena dena, prestatuta, koordinatuta eta antolatuta gaudela soluzio bideragarriak emateko eta lankide aktibo izateko. Behar dugu erakutsi ezen europar proiektuaren sendotasuna lortzen dela gure instituzioak behetik gora eraikiz, eta gobernantza-maila guztiak funtsezkoak direla, kidego sozial integratu eta interdependente baten parte direla".

Arantza Quirogak, azkenik, nabarmendu du "bere harrotasuna guztiok batera egin dugun bideagatik. Harrotasuna baita ere Eusko Legebiltzararentzat, bere bizitzako 30 urteetako parte bat zuekin batera ibili izanagatik. Espero dut ospatzen ari garen hiru hamarkada hauek balioko zutela etsenplu izateko askorentzat, etsenplu, gizarte zibil honek erronka askori aurre egin behar izan diolako; etsenplu, herri honek beren instituzio demokratikoak indartuz erantzun behar izan dielako ezbeharrei, etxenplu gobernantzako esperimendu paregabe gauzatu delako, urteekin finkatu baino egin ez den esperimendua".





NOTA DE PRENSA

En la inauguración de la CALRE hoy en San Sebastián

Quiroga asegura que la UE “necesita contar con los Parlamentos Regionales por ser los más cercanos a los ciudadanos y sus problemas reales”

Propone crear un grupo de trabajo “que estudie el encaje óptimo de los Parlamentos Regionales en la arquitectura institucional de la UE”

La Presidenta del Parlamento Vasco, Arantza Quiroga, ha señalado hoy si la Unión Europea “no valora a las Cámaras regionales en su justa medida, su trabajo, sus aportaciones, Europa se estará alejando de los ciudadanos, caminaría en dirección contraria a la que demandan el conjunto de los europeos del siglo XXI y en la que tabajamos todos los días los aquí presentes.”

Quiroga ha hecho estas manifestaciones durante la inauguración del Comité Permanente de la CALRE (Conferencia de Asambleas Legislativas de Europa) que durante la jornada de hoy se ha reunido en las Juntas Generales de Gipuzkoa y que ha sido organizada por el Parlamento Vasco.

La Presidenta del Parlamento Vasco ha agradecido la presencia de los Presidentes de Cámaras Regionales asistentes y ha destacado el grado de compromiso asumido por los parlamentos regionales, así como su importancia en el proyecto de integración europea. “He podido comprobar, añade, además la necesidad de promover y fortalecer los lazos institucionales que hoy nos unen. Y la trayectoria de la CALRE es el reflejo de todo el esfuerzo que hemos puesto y ponemos para poder acercarnos unos a otros, en el intento de construir una Europa más cercana a nuestros ciudadanos.”.

Arantza Quiroga señala que los parlamentos regionales constituimos “la expresión viva de nuestra diversidad, de ese mosaico social que se intercala en distintas escalas de gobernanza, en esa riqueza cultural que existe adentro de las frontera estatales. Y el hecho de que estéis vosotros aquí presentes es testimonio de que, por encima de esas tonalidades que nos diferencian, existe un sentimiento de comunidad que nos acerca, y nos obliga a colaborar activamente, que nos emplaza a exigir el grado de atención que merecen las casas de la democracia regional.





“No importa cuan lejos estemos, prosigue Quiroga, lo importante hoy es que hemos por fin adquirido conciencia de la crucial transcendencia que podemos tener si aunamos esfuerzos. Y hoy más que nunca debemos hacerlo, debemos esforzarnos en conjunto. Este aniversario lo celebramos durante el primer año de vigencia del Tratado de Lisboa, el cual nos ha abierto una ventana institucional que debemos aprovechar en todo su potencial, para demostrar los beneficios reales de integrar a los parlamentos regionales en el proceso de formulación normativa europea. Si bien está un poco lejos de nuestras expectativas, tales innovaciones constituyen una oportunidad que no debemos desaprovechar, constituyen un avance significativo que nos pone en el mapa institucional comunitario”.

La Presidenta del Parlamento Vasco se muestra convencida de que Europa debe mirar más a los Parlamentos Regionales “porque somos las bases del edificio institucional europeo, somos expresión viva de la democracia, encarnación del principio de subsidiariedad y acercamos el centro de poder lo más posible a los ciudadanos. Europa no se puede seguir construyendo de espaldas a los Parlamentos Regionales. Reclamamos un papel más activo porque somos quienes escuchamos más de cerca los problemas reales de los ciudadanos. De ahí la necesidad de crear un grupo de trabajo que tenga como objetivo buscar el encaje óptimo de los Parlamentos Regionales en la arquitectura institucional de la Unión Europea”..

“Ahora nos toca demostrar que somos unos intermediarios más próximos al ciudadano, que esta proximidad nos permite un mayor grado de empatía democrática y, lo más importante, que estamos preparados, coordinados y organizados para dar soluciones viables y contribuir activamente. Debemos demostrar que la solidez del proyecto europeo se consigue construyendo nuestras instituciones desde abajo hacia arriba, y que todas las escalas de gobernanza son vitales, son parte de un cuerpo social integrado, interdependiente”.

Arantza Quiroga ha finalizado remarcando el orgullo del camino recogido juntos. Un orgullo también para el Parlamento Vasco haber recorrido parte de sus 30 años de vida junto a vosotros. Espero que estas tres décadas que celebramos hayan servido también de ejemplo para muchos, de ejemplo de una sociedad civil que ha hecho frente a muchos desafíos; de ejemplo de un pueblo que ha respondido a la adversidad reforzando sus instituciones democráticas, en un experimento de gobernanza único, que no ha hecho más que consolidarse con los años.”

